

Dosaner, Ermuko Odol emaileen elkartea

Hogeitabost urte pasa dira odol emaile taldea elkartzeko hasi zenetik. Hainbat lokaletan pasa eta gero, duela urte batzuk euren lekua topatu dute eta herriko odol emateak antolatzeaz arduratzen dira.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Taldea 1983. urtean hasi zen lanean, baina elkarte moduan urte batzuk beranduago hasi ginen.

- Zenbat kide zarete?

Hamabost gara. Horietaz gain jende pilo bat odola ematera etortzen da, baina horiek ez dute antolakuntzan lan egiten.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Guk informazioa eskaintzen dugu eta gure nahia emaile berriak egitea da, gazteak batez ere, zaharrek gero eta arazo gehiago izaten ditugulako odola emateko.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Hilean behin elkartzeko gara, odol ematea baino astebete lehenago. Data hauek ez ditugu aukeratzeko, Bizkaiko Elkartetik egutegia bidaltzen digute eta guk emaileei gutunak bidaltzeaz arduratzen gara. Gure lokalean hilabeteko egoten dira odol emateak, batzutan, hile berean 2 egoten dira, Patxi plazan bi hilean behin eta San Lorentzon, hiru hilean behin. Hiru hilean behin, gainera, bilera egiten dugu Galdakaon elkarte guztietako lehendakariok.

- Zein ekitaldi egiten dituzue?

Odola eman behar den guztietan,

guk antolatzen dugu dena. Emailearen eguna ere guk antolatzen dugu, eta gabonetako diru-bilketak ere.

- Txangoak egiten dituzue?

Bai, beste elkarteek gonbidatzen gaituztenean bai, gure artean harremana dugulako. Iaz, adibidez, Elorrioko elkarteak 50 urte bete zituen eta han egon ginen.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Gure lokalera etor daitezke (anbulategi zaharrarean, Pakotik gertu), hilaren 3. astean, 22:00ak aldera edo 220 Kutxatilara gutuna bidali.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

ROGETEN ITURR 158. 26a